1.– Parke naturalean burutzen diren zientzia edo ikerketarako iharduera guztietarako Parkearen Kudeaketa Organoaren baimena behar da, eta iharduera burutzen den herriko udalak haren berri izan behar du.

2.– Zientzia edo ikerketa helburu izanik, parketik edozein gai hartu edo biltzeko, Parkearen Kudeaketa Organoaren baimena behar da, eta horren berri eman beharko zaio kasuan kasuko udalerriari. Bilduko den kopurua txikia izango da eta gordailutzat hartuko da.

3.– Zientzia edo ikerketa ihardueraк burutzeko denean, iragaite murriztuko bideetatik gaiak eta pertsonak garraiatzeko iragaite-haizugo bereziak eman ahal izango dira. Era berean, kanpamenduak eta beharrezko diren beste azpiegitura batzuk jartzeko baimena eman ahal izango da, horretarako gaitu ez diren aldeetan, beti ere aldi baterako eta, ikuspegiari zein ekologiari dagokionez, ahalik eta eraginik txikienarekin.

4.– Parke naturalean burututako ikerketen arduradunak, bestalde, aurretik zeuden natur baldintzak berreskuratzeko behar diren lanak egin beharko ditu.

*20. atala.*– Hezkuntza ihardueraк.

A.– HELBURUA.

Naturako ingurunera hurbildu behar da jendea, ingurune horri buruz dakitena gehiago zabaltzeko eta, batez ere hiriko biztanleen kasuan, natura artatu beharraz jabetu daitezen.

B.– ARTEZPIDEAK.

Aiako-harria parke naturaleko natur eta kultur ondarearen balioak jendartera hedatzeko behar diren informazio eta heziketa azpiegiturak antolatuko dira.

C.– ARAUAK

1.– Parkearen «Jolas Erabilpenerako Plan» bat finkatu beharko du Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak, martxan jarri behar diren ihardueraк eta horiei loturiko azpiegiturak bertan jasoaz.

2.– Parkearekin zerikusirik ez duten pertsona edo erakundeen menpeko hezkuntza azpiegiturarako edozein instalazio jartzeko, Parkearen Kudeaketa Organoari eskatu beharko zaio baimena: eraikinak, panelak, seinaleak, eta abar.

*21. atala.*– Eraikuntza eta azpiegituretako ihardueraк.

A.– ARTEZPIDEAK.

1.– Parke naturaleko natur eta kultur ingurunea babestu egingo da, egun dauden azpiegiturek paisaian duten eragina gutxitzeko behar diren konponketa lanak burutuz, lan horiek beharrezkoak direnean.

2.– Egun dauden azpiegiturak, beharrezkoa bada, faunarentzat egokituko dira.

3.– Eraikuntza eta azpiegitura berriak parke naturalaren ingurunean integratu beharko dira, ekar litzaketen eraginak ahal denik eta txikienak izan daitezen.

C.– NORMAS.

1.– Toda actividad científica o de investigación que se desarrolle en el Parque Natural deberá ser autorizada por el Órgano Gestor del Parque, con el conocimiento del Ayuntamiento en el que se desarrolle la actividad.

2.– La retirada o recogida de cualquier material del Parque con fines científicos o de investigación, necesitará la autorización expresa del Órgano Gestor del Parque, y con información al municipio correspondiente. Dicha recogida será en cantidad reducida y en calidad de depósito.

3.– Para la realización de actividades científicas o de investigación se podrán otorgar permisos especiales de tránsito para el transporte de material y personas por las vías de tránsito restringido. Igualmente se podrá autorizar la instalación de los campamentos e infraestructuras necesarias en zonas no habilitadas a tal fin, con carácter temporal y con impacto visual y ecológico mínimo.

4.– El responsable de las investigaciones realizadas en el Parque Natural deberá proceder a los trabajos necesarios para la restauración de las condiciones naturales que hubiera con anterioridad.

*Artículo 20.*– Actividades educativas.

A.– OBJETIVO.

Acercar la población hacia un entorno natural, con el fin de aumentar su conocimiento sobre este medio así como lograr una mayor sensibilización, sobre todo en el caso de las poblaciones urbanas, hacia la necesidad de su conservación.

B.– DIRECTRICES.

Se organizará la infraestructura informativa y educativa precisa para la necesaria difusión entre el público de los valores del patrimonio natural y cultural del Parque Natural de Aiako Harria.

C.– NORMAS.

1.– El Plan Rector de Uso y Gestión deberá establecer un «Plan para el Uso Educativo» del Parque, que contemple las actividades a poner en marcha y las infraestructuras a ellas asociadas.

2.– Se deberá someter a la autorización del Órgano Gestor del Parque cualquier instalación de infraestructura educativa: edificios, paneles, señalizaciones, etc., que dependa de personas u organismos ajenos al Parque.

*Artículo 21.*– Actividades constructivas e infraestructuras.

A.– DIRECTRICES.

1.– Se protegerán el medio natural y cultural del Parque Natural, realizando las medidas de restauración necesaria para minimizar el impacto paisajístico de las infraestructuras existentes que así lo requieran.

2.– Se procederá a la adecuación para la fauna de las infraestructuras existentes que así lo requieran.

3.– Las nuevas construcciones e infraestructuras deberán integrarse en el entorno del Parque Natural, minimizando los impactos que pudieran producir.

4.– Aiako-harria parke naturalerako bide-azpiegitura plana prestatuko da, eta bertako bide sarerako plangintza osotua burutuko da.

B.– ARAUAK.

1.– Aiako-harria parke naturaleko bide, errepide eta pistak era honetan sailkatuko dira:

a) Iragaite askea: errepideak eta auzo eta bakarturiko baserrietara heltzeko bideak. Bide horietan, aplikatzekoak diren arauek bakarrik mugatuko dute iragaite eta estazionamendua.

b) Iragaite baimendua: Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean zehazturiko jolas aldeetara doazen parke naturaleko pistak eta bideak. Bide horiei dagokienez, Parkearen Kudeaketa Organoak beharrezkotzat jotzen dituen mugak jarri ahal izango ditu.

c) Iragaite murriztua: gainerako pista eta bideak.

2.– Motoredun ibilgailuek badute iragaite aske eta iragaite baimendun lez sailkatutako bideetan ibiltzeko baimenik, nahiz eta ezarritako mugapenen barruan izan behar den.

3.– Iragaite murriztuko bideak parkeko zerbitzuetarako (jagotea, sorospena, salbamendua...), abeltzaintza eta basogintza erabilpenetarako eta mendiko aterpeetako zerbitzuetarako bakarrik erabili ahal izango dira, baita Parkearen Kudeaketa Organoak baimendutako beste batzuetarako eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean ohartemandakoetarako ere. Hartara:

– Baso edo abereen jabeak eta aterpeen arduradunak horretarako sortuko den erregistro batean inskribatu beharko dira.

– Aurreko puntuan sartuta ez dauden gainerako erabiltzaileek iragaiteko baimena eskatu beharko dute parkeko bulegoetan edo dagokien udalean. Baimen hori egun kopuru mugatu baterako emango da, gidari eta ibilgailu zehatz batentzat, eta noraino iritsi daitezkeen adierazita.

4.– Aparkalekuen diseinua jolas aldearen edukieraren arabera egingo da, eta paisaian izan lezaketen eragina ekiditeko ahaleginak egingo dira.

5.– Debekatu egiten da autobideak, autobiak, bide azkarrak eta errepideak eraikitzea.

6.– Debekatuta dago trenbide, funikular edo antzerako lineetarako azpiegiturak eraikitzea, parke naturalaren berezko iharduerekin zuzenean lotuta ez badaude.

7.– Pista berri bat zabaltzeko, beharrezko izango dira Parkearen Kudeaketa Organoaren baimen eta onespena, sustatzaileak txosten bat aurkeztu ondoren; txosten horretan beste bide berri baten beharra bidezkotu beharko da, lortu nahi diren helburuak betetzeko nahiko ez direlako orain dauden bideak; horrez gain, diseinu batzuk aurkeztuko dira aukeran, obraren eragina ebaluatuko da eta ingurugiroan obrak sor lezakeen eragina ahal denik eta txikiena izateko behar diren neurriak proposatuko dira. Pistaren trazaketan, %12tik gorako maldak saihestu egin beharko dira; baina salbuespen batzuetan muga hori gainditu egin ahal izango da paisaiari eragin kaltegarriak ekiditeko xedeaz. Ur-

4.– Se elaborará un Plan de Infraestructuras viarias para el Parque Natural de Aiako Harria planificando globalmente la red viaria del mismo.

B.– NORMAS.

1.– Los caminos, carreteras y pistas del Parque Natural de Aiako Harria se clasificarán del siguiente modo:

a) Libre tránsito: Definidas como las carreteras y caminos de acceso a barrios y caseríos aislados. En estas vías el tránsito y estacionamiento sólo estará limitado por las normas que les sean de aplicación.

b) Tránsito autorizado: Pistas y caminos del Parque Natural que conduzcan hasta las áreas recreativas definidas en el Plan Rector de Uso y Gestión. En estas vías el Órgano Gestor del Parque podrá establecer las limitaciones que considere necesarias.

c) Tránsito restringido: Resto de pistas y caminos.

2.– Se permite la circulación con vehículos a motor por las vías clasificadas de libre tránsito y de tránsito autorizado, dentro de las limitaciones establecidas.

3.– Las vías de transito restringido sólo podrán utilizarse por los servicios del Parque (vigilancia, socorro, salvamento, etc.) y para los usos ganaderos, forestales y de servicio a los refugios de montaña y aquellos que autorice el Órgano Gestor del Parque o que se prevean en el Plan Rector de Uso y Gestión. A tal efecto:

– Los propietarios forestales, ganaderos y responsables de refugios deberán inscribirse en un registro que se creará al efecto.

– El resto de usuarios no incluidos en el punto anterior deberán solicitar permiso de tránsito en las oficinas del Parque o en el Ayuntamiento correspondiente. Este permiso se concederá para un número limitado de días, a favor de un conductor y un vehículo determinado, señalando el lugar a donde se accederá.

4.– El diseño de los aparcamientos se efectuará en función de la capacidad del área recreativa y tratando de evitar el impacto paisajístico que pudieran producir.

5.– Se prohibe la construcción de autopistas, autovías, vías rápidas y carreteras convencionales.

6.– Se prohibe la construcción de infraestructuras de transporte ferroviario, funiculares o líneas similares que no estén en función directa con las actividades propias del Parque Natural.

7.– La apertura de una nueva pista requerirá la autorización y aprobación expresa del Órgano Gestor del Parque, previa presentación de un informe por el promotor que justifique la necesidad de una nueva vía por no cumplir las existentes los objetivos buscados, presente varias alternativas de diseño, evalúe la incidencia de la obra y proponga las medidas necesarias para la minimización del impacto ambiental que se pudiera producir. Se evitarán, en el trazado de la pista, las pendientes superiores al 12%, pudiendo excepcionalmente superarse dicho límite con el fin de evitar impactos paisajísticos negativos. Los pasos de agua, tanto permanentes como estacionales, contarán con las correspondientes

pasabideak gainditzeko, hala iraunkorrak nola sasoikoak, obra egokiak egingo dira. Pistak eraiki eta konpontzean enparatzen diren gaien biltegiratzea zorroztasunez kontrolatuko da.

8.– Edozein erakunde publikoren menpeko errotuluak bateratu egin beharko dira eta pribatuak direnak Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak arautu beharko ditu.

9.– Parkearen Kudeaketa Organoak baimendu eta arautu beharko ditu «Azpiegituretako Zortasun Aldean» kokaturik ez dauden seinale, bide-marka, errotulu, oraigarrizko plaka edo monumentu edota mendiko buzoi guztiak.

10.– Ez da onartuko parke naturalarena ez den inolako publizitaterik.

11.– Merkataritza-establezimendu edo jatetxeen izena adierazten duten iragarkiak ez dira «Kanpoko publizitate»tzat hartuko. Iragarki horiek, dena dela, Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak zehaztuko dituen eta parkearen estetika orokorrarekin bat etorriko diren tamainu, mota eta abarrei buruzko irizpideetara makurtu beharko dira.

12.– Azpiegitura linealen zortasunei loturiko lurretan egiten diren instalazioak, bada, aplikatzekoak diren arauetan ezarritakoari lotuko zaizkio.

13.– Energia eta jariokinen garraiorako eta telekomunikazioko seinale edo antzekoetarako ez da baimenduko airetiko azpiegitura berririk eraikitzerik; azpiegiturok, ordea, lurpean jarri beharko dira. Salbuespen gisa, debeku horretatik kanpo geldituko dira honako hauek:

a) Egun dauden azpiegitura eta eraikuntzei zerbitzua eman edo parke naturaleko zerbitzurako direnak, Parkearen Kudeaketa Organoak baimena eman eta gero.

b) Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomi Elkartearen interes orokorrekotzat jotzen dituen azpiegiturak.

14.– «Azpiegituretako Zortasun Alde» lez zehaztutako aldetik kanpo, debekaturik egongo da eraikinak egitea Bidasoa, Urumea eta Oiartzun ibaien ubidearen alde bietako 50 m-ko lurretan, Añarbe, Endara eta Errolasarko ibaien ubidearen alde bietako 25 m-ko lurretan eta Añarbeko urtegia inguratzen duen 200 m-ko lur aldean. Urak babestu eta aprobetxatzeko diren eraikin edo instalazioak eraiki ahal izango dira, baita egun dauden eraikinak eraberritu ere.

15.– «Azpiegituretako Zortasun Alde» lez zehaztutako aldetik kanpo eraikuntza berriak instalatzeko, Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak jarriko ditu arauak edo, horrek ezean, ukituriko udalerriko ordezko arauek, baina Parkearen Kudeaketa Organoaren onarpenaz. Ez da inola ere baimenduko lehenengo sektoreari loturik ez dagoen egoitzarako eraikuntza berririk.

16.– Ukituriko udalerriko ordezko arauez arautuko dira egun dauden eraikuntzetan burutu behar diren iharduketa guztiak.

obras de fábrica para salvarlos. El depósito de los materiales sobrantes en la construcción y reparación de pistas serán controlados con rigurosidad.

8.– Los rótulos que dependan de cualquier Institución Pública deberán unificarse y los de carácter privado deberán ser regulados por el Plan Rector de Uso y Gestión.

9.– Toda señalización, marcaje de caminos, rótulos, placas o monumentos conmemorativos o buzones montañeros, no situados en «Zona de Servidumbre de Infrestructuras», deberán ser autorizados y regulados por el Órgano Gestor del Parque.

10.– No se aceptará ningún tipo de publicidad ajena al Parque Natural.

11.– No se considerará «Publicidad Exterior» los letreros indicativos del nombre los establecimientos restaurantes o comerciales. Estos letreros deberán, sin embargo, someterse a los criterios de tamaño, tipo, etc., acordes con la estética general del Parque, que determine el Plan Rector de Uso y Gestión.

12.– Las instalaciones que se efectúen sobre los terrenos sujetos a servidumbres de infraestructuras lineales, se sujetarán a lo establecido por las normas que les sean de aplicación.

13.– No se permite la construcción de nuevas infraestructuras aéreas para el transporte de energía, fluidos, señales de telecomunicaciones o similares, debiendo ir enterradas. Podrán excepcionarse de esta prohibición:

a) Aquéllas que presten servicio a infraestructuras y edificaciones ya existentes o para el servicio del Parque Natural, previa autorización del Órgano Gestor.

b) Aquellas infraestructuras declaradas de interés general para la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Gobierno Vasco.

14.– Fuera de la zona definida como «Zona de Servidumbre de Infraestruturas» se prohibe la construcción de edificaciones en dos franjas de terreno de 50 m. de anchura a ambos lados del cauce de los ríos Bidasoa, Urumea y Oiartzun, dos franjas de terreno de 25 m. de anchura a ambos lados de los cauces de los ríos Añarbe, Endara y Errolasarko, y una corona de 200 m. alrededor del embalse de Añarbe. Se exceptúa la construcción de edificaciones o instalaciones para la defensa y aprovechamiento de las aguas y la reforma de las edificaciones ya existentes.

15.– La instalación de nuevas construcciones fuera de la zona definida como «Zona de Servidumbre de Infraestructuras» deberá ser regulada por el Plan Rector de Uso y Gestión o, en su defecto, por las Normas Subsidiarias del municipio correspondiente, debiendo ser aprobado por el Órgano Gestor del Parque. En ningún caso se autorizará la construcción de nuevas edificaciones con uso residencial no vinculado al sector primario.

16.– Toda actuación a realizar en edificaciones ya existentes se regirá por las Normas Subsidiarias del Municipio correspondiente.

C.– ALDIBATERAKO ARAUAK.

Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onetsi arte, ondoko arau hauek aplikatuko dira:

1.– Udalerri bakoitzeko ordezko arauez arautuko da azpiegitura berriak eraikitzea.

2.– Iragaite baimenduko bidetzat ondoko leku hauetara heltzen diren tarteak hartuko dira:

a) Listorretatik Susperregira.
b) Ugaldetxotik Bidegurutzetara Aparraingo bidean.

3.– Pistetan bizikletaz ibili ahal izango da, baina bertatik irten gabe.

*22. atala.*– Beste erabilpen eta iharduera batzuk.

A.– ARTEZPIDEAK.

1.– Parkearen helburuetarako ez da egokia iharduera militarrak egitea.

2.– Izurriteen aurrearreta eta kontrolerako teknika biologikoak suspertu eta subentzionatuko dira.

3.– Parke naturalean bete dadin edozein iharduerak ondorio negatiborik sortzen badu herriko edo norbanakoen ekonomiarako, kalteordainak eman beharko dira.

B.– ARAUAK.

1.– Debekaturik dago ibaien ubideetatik legarrak eta hareak ateratzea, ubidea behar bezala mantentzeko beharrezkoa izan ezik; halakoetan, Parkearen Kudeaketa Organoaren berariazko baimena beharko da.

2.– Debekaturik dago toki irekietan sua piztea, jolas-, abeltzaintza- eta baso-ihardueretan jasotako salbuespenetan ezik.

3.– Debekaturik dago, ihes libreko ibilgailu, megafono, turuta, musika tresna, irrati edo antzekoak gogaikarria den bolumenean erabiliz, parke naturaleko baretasun eta lasaitasuna urratzea.

4.– Sute baten ostean debekaturik egongo dira erabilpen–aldaketa guztiak, sutea baino lehen zuhaitzik ez zuten lurren basoketa egitea ezik.

5.– Debekaturik dago motoredun edo/eta mekanikoak diren tresnak behar dituen edozein kirol saio egitea, errepideetan egiten direnak izan ezik; baina, horretarako, Parkearen Kudeaketa Organoaren baimena behar da.

6.– Debekaturik dago zarramarra, eskonbro, zabor eta edozein motatako isurgai horretarako propio prestatu diren lekuetatik kanpo botatzea.

7.– Debekaturik dago biziraupen ariketak egitea.

8.– Edozein gai kimiko erabiltzea -bere dosia eta aplikatzeko modua, landare zein abere sanitatezko helburuekin, zomorrohilkari, belarrilkari, ongarri edo emendagarri organikoak izan-, Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean ezarritako artezpideekin bat etorriz gauzatuko da, erabilera horri aplikatu behar zaizkion arauetan xedaturikoari lotuta, edonola ere.

C.– NORMAS PROVISIONALES.

Hasta la aprobación del Plan Rector de Uso y Gestión serán de aplicación las siguientes normas:

1.– La construcción de nuevas infraestructuras será regulada por las Normas Subsidiarias de cada Municipio.

2.– Se consideran vías de tránsito autorizado el tramo de acceso hasta:

a) Susperregi desde Listorreta.
b) Bidegurutzeta desde Ugaldetxo en el camino hacia Aparrain.

3.– Se permitirá la utilización de bicicletas en las pistas, no pudiendo abandonarlas.

*Artículo 22.*– Otros usos y actividades.

A.– DIRECTRICES.

1.– Se considera inadecuada, con los Objetivos del Parque, la realización de actividades militares.

2.– Se fomentarán y subvencionarán técnicas biológicas para la prevención y control de plagas.

3.– Toda actuación a desarrollar en el Parque Natural que conlleve repercusiones negativas para la economía local o particular, deberá ir acompañada de las correspondientes medidas compensatorias.

B.– NORMAS.

1.– Se prohibe la extracción de gravas y arenas en cauces fluviales, excepto en caso de aquellas extracciones necesarias para el correcto mantenimiento del cauce, que requerirán una autorización expresa del Órgano Gestor del Parque.

2.– Se prohibe encender fuego en lugares abiertos, salvo en el caso de las excepciones contempladas en las actividades recreativas, ganaderas y forestales.

3.– Se prohibe alterar la calma y tranquilidad en el Parque Natural mediante la utilización de vehículos con escape libre, megáfonos, bocinas, instrumentos musicales, aparatos de radios o similares con volumen que resulte molesto.

4.– Tras un incendio, se prohibe todo cambio de usos del suelo excepto la forestación de terrenos anteriormente desarbolados.

5.– Se prohibe cualquier prueba deportiva que emplee medios mecanizados y/o motorizados en el interior del Parque Natural, excepto aquéllas que utilicen las carreteras, que deberán ser aprobadas por el Órgano Gestor del Parque.

6.– Se prohibe el abandono de desperdicios, escombros, basuras o todo tipo de vertidos en lugares que no estén expresamente concebidos para tal fin.

7.– Se prohibe la realización de ejercicios de supervivencia.

8.– El empleo de una determinada sustancia química, sus dosis y modo de aplicación, con fines fitosanitarios, zoosanitarios, plaguicidas, herbicidas, fertilizantes o enmiendas orgánicas, se realizará de conformidad con las directrices establecidas en el Plan Rector de Uso y Gestión, con sujeción, en todo caso, a lo dispuesto en la normativa que le fuere de aplicación.

9.– Debekaturik dago isurtegiak eta zabortegiak jartzea eta txatarrak pilatzea.

10.– Debekaturik dago hiri eta industriako honadakinak, pilatu, utzi eta desagertzeko instalazioak jartzea.

B SEKZIOA.– Baliabideak babesteko helburu, artezpide eta arau orokorrak.

*23. atala.*– Lurzoruaren babesa.

A.– HELBURUAK.

1.– Lurzoruaren baliabideak artatzea.

2.– Aurrearretazko neurriak hartzea, lurzoruaren galerak aurrera jarraitu ez dezan.

B.– ARTEZPIDEAK.

1.– Parkearen Kudeaketa Organoak lurzoruaren baliabideak arta daitezen jagongo du, galerak ahal denik eta txikienak izateko behar diren ekintzak burutuz.

2.– %50etik gorako malda duten azalerak zuhaitzez estaltzera joko da.

C.– ARAUAK.

1.– Debekaturik dago lurzorua ezertan higitzea, baimendutako ihardueretarako beharrezkoak direnak izan ezik -abeltzaintza, nekazaritza, basogintza, eraikuntza edo azpiegiturak egiteko-. Parkearen Kudeaketa Organoak beste iharduera batzuk baimendu ahal izango ditu, interes orokorrak horrela eskatzen duenean: zundaketak, zientzia ikerketak, eta abar.

2.– Parkearen Kudeaketa Organoak edozein iharduera egitea arautu dezake, baita debekatu ere, ezin onar daitezkeen lurzoru–galerak edo lerradurak gertatzen diren lekuetan.

*24. atala.*– Baliabide hidrologikoen babesa.

A.– ARTEZPIDEAK.

1.– Uraren kalitatea zainduko da, bai lurgainean bai lurrazpian, eta gutxienezko ur-etorri ekologikoak bermatuko dira.

2.– Parkearen Kudeaketa Organoak, Urei buruzko Legeak definitutako ibaibideen hegi, ubide eta urbazterrak arta daitezen jagongo du. Alde horien egitura edo landaretza aldatzen duten obren burutzapenak ekar litzakeen eraginak ahal den gehien gutxituko dira. Horretarako, harri-lubetak edo urak bideratzeko beste sistema bigun batzuk erabiltzea eskatzen da. Beharrezkoa denean, berritu egingo dira ibaibideen hegi, ubide eta urbazterrak.

3.– Ubide edo urbazterretan hartutako uren eta jarritako urbideen eta unean-uneko isurketen eta aldarazpenen inbentarioa egingo da.

4.– Plan hidrologikoak egiterakoan, ukitutako udal korporazioek aldez aurretik hartutako akordioak izan beharko dira kontuan.

5.– Ustiaketa hidrologikorako emakiden erregistroa sortuko da eta horien guztion emakidarako baldintzak zuzen betetzen direla kontrolatuko da.

9.– Se prohibe la instalación de vertederos, escombreras y almacenamiento de chatarra.

10.– Se prohiben las instalaciones de almacenamiento, depósito y eliminación de residuos urbanos e industriales.

SECCIÓN B.– Objetivos, directrices y normativa general para la protección de los recursos.

*Artículo 23.*– Protección del suelo.

A.– OBJETIVOS.

1.– Conservar el recurso suelo.

2.– Tomar medidas preventivas para impedir la progresiva pérdida de suelo.

B.– DIRECTRICES.

1.– El Órgano Gestor del Parque velará por la conservación del recurso suelo, realizando las acciones necesarias para minimizar su pérdida.

2.– Se tenderá a que las superficies con pendiente superior al 50% se encuentren bajo cubierta arbórea.

C.– NORMAS.

1.– Se prohibe cualquier tipo de remoción del suelo, salvo las necesarias para las prácticas autorizadas: ganaderas, agrícolas, forestales, de edificación o infraestructuras. El Órgano Gestor del Parque podrá autorizar otras prácticas cuando el interés general así lo requiera: sondeos, investigación científica, etc.

2.– El Órgano Gestor del Parque podrá regular o incluso prohibir la realización de cualquier tipo de actividad en los lugares en que se produzcan pérdidas de suelo inadmisibles o deslizamientos.

*Artículo 24.*– Protección de los recursos hidrológicos.

A.– DIRECTRICES.

1.– Se preservará la calidad del agua, tanto superficial como subterránea y se asegurarán los caudales mínimos ecológicos.

2.– El Órgano Gestor del Parque velará por la conservación de las márgenes, cauces y riberas de los cursos de agua así definidos por la Ley de Aguas. Se minimizarán los impactos que pudiera producir la realización de obras que supongan la modificación de la estructura o vegetación de las mismas recomendándose a tal efecto, la utilización escolleras u otros medios de canalización blanda. Se restaurarán aquellas márgenes, cauces y riberas que sea necesario.

3.– Se inventariarán las captaciones y conducciones, vertidos puntuales y modificaciones realizadas en cauces o riberas.

4.– En la elaboración de los planes hidrológicos se tendrán en consideración los acuerdos adoptados de antemano por parte de las Corporaciones de los Municipios afectados.

5.– Se creará un registro de las concesiones de aprovechamiento hidroeléctrico y se controlará el correcto cumplimiento de las condiciones de concesión de todas ellas.

6.– Berreskuratu egingo dira ubideak; urak bideratzeko hodiak kendu egingo dira, aldiz, erabiltzen ez badira.

7.– Ibaietako uren kalitatea neurtzeko azterlanak egingo dira, batez ere zabortegiak garbitzean sor daitekeen kutsaduraren berri izateko. Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren barruan, Añarbeko urtegira isurtzen duen arroan egin daitezeko era guztietako iharduerak arautzeko plan bat idatziko da.

B.– ARAUAK.

1.– Debekaturik dago edozein isurketa egitea edota ziklo hidrologikoan edo parke naturaleko uren kalitatean eragin txarra izan dezakeen edozein gai kimiko erabiltzea, indarrean dagoen legerian eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean ezarritako lekuetan, kasuetan eta baldintzetan izan ezik.

2.– Urak kutsa litzakeen edozein iharduketa berri burutzeko, beharrezkoa izango da isur litezkeen gaiak arazteko sistema erabiltzea; Parkearen Kudeaketa Organoak baimendu beharko du sistema hori.

3.– Uren kalitaterako arriskugarri izan daitezkeen hondakin urak isurtzen dituzten eta parkearen barruan dauden eraikuntzetan, arazteko sistemak jarri beharko dira, baita, kasuan kasu, ur-etorria erregulatzeko behar diren sistemak ere, ezartzen zaien epean eta indarreko legeriaren arabera.

4.– Draga lanak eta urtegiak edo ubideak garbitzeko lanak egiteko baimena Parkearen Kudeaketa Organoak eman beharko du.

5.– Edozein obra hidrauliko egiteko, Parkearen Kudeaketa Organoaren baimena beharko da, indarrean dagoen legerian xedaturikoaren aurka jarri gabe.

6.– Edozein ustiaketa hidrologiko berrirako emakida eskabidearekin batera, Parkearen Kudeaketa Organoaren informea behar da.

7.– Aiako-harria parke naturaleko aldean herriak hornitzeko hartutako urak erabiltzen jarraitu ahal izango dutela bermatzen zaie udalerriei, egun egiten duten baldintzetan egiteko hain zuzen.

*25. atala.*– Flora eta faunaren babesa.

A.– ARTEZPIDEAK.

1.– Parkearen Kudeaketa Organoak parke naturalean egoera basatian bizi diren abere eta landareen espezieak artatzeko jagongo du, baita beren aniztasuna eta edukin genetikoa ere.

2.– Habitat urri edota hauskorrak gordeko dira, hala behar duten espezie, biztanleria eta komunitateentzako babes-neurri zehatzak ezarriz. Horrela hartuko dira, gutxienez, bertoko hostozabalen unadak, haltzadiak, hezeguneak, haitzuloak, ibaien ubideak eta harkaiztegiak.

3.– Aiako-harria parke naturalean arriskuan dauden eta babes neurri zehatzak eskatzen dituzten animalia

6.– Se rehabilitarán los canales y se retirarán las tuberías fuera de uso de las conducciones.

7.– Se realizarán estudios sobre la calidad del agua de los cursos fluviales, en especial de la posible contaminación provocada por el lavado de las escombreras. Dentro del Plan Rector de Uso y Gestión se redactará un Plan dedicado a regular las actividades de todo tipo que se realicen en la cuenca que vierte al embalse de Añarbe. Este Plan se redactará en coordinación con la Mancomunidad de Aguas del Añarbe y deberá ser aprobado por el Órgano Gestor del Parque.

B.– NORMAS.

1.– Se prohibe la realización de cualquier tipo de vertido así como la utilización de cualquier tipo de sustancia química que pueda afectar negativamente al ciclo hidrológico o a la calidad de las aguas del Parque Natural, fuera de los lugares, en los supuestos y dentro de las condiciones establecidas en la legislación vigente y en el Plan Rector de Uso y Gestión.

2.– Toda nueva actuación, susceptible de provocar contaminación de las aguas, deberá poseer un sistema depurador de los efluentes que pudiera provocar, siendo éste autorizado por el Órgano Gestor del Parque.

3.– Las edificaciones situadas en el interior del Parque, cuyos vertidos de aguas residuales puedan suponer un riesgo para la calidad de las aguas, deberán instalar los sistemas de depuración, y en su caso, los sistemas de regulación de caudal necesarios en el plazo que se les fije y de acuerdo con la legislación vigente.

4.– Los dragados, limpieza de embalses o de cauces deberán ser autorizados por el Órgano Gestor del Parque.

5.– La realización de cualquier obra hidráulica deberá ser aprobada por el Órgano Gestor del Parque, sin perjuicio de lo dispuesto en la legislación vigente.

6.– La petición de concesiones de cualquier nuevo aprovechamiento hidrológico deberá ir acompañada por un informe del Órgano Gestor del Parque.

7.– Se garantizará la utilización por parte de los Municipios, en las condiciones en que lo hacen en la actualidad, de las tomas de agua para abastecimiento público que existen dentro del área del Parque Natural de Aiako Harria.

*Artículo 25.*– Protección de la Flora y Fauna.

A.– DIRECTRICES.

1.– El Órgano Gestor del Parque velará por la conservación de las especies de Fauna y Flora que habitan en estado silvestre en el Parque Natural, su diversidad y contenido genético.

2.– Se preservarán los hábitats escasos y/o vulnerables, estableciendo medidas específicas de protección para las especies, poblaciones y comunidades que así lo requieran. Tendrán esta consideración, al menos, los rodales de frondosas autóctonas, las alisedas, los humedales, cuevas, los cauces fluviales y los roquedos.

3.– Se elaborará un catálogo de Especies Animales y Vegetales Amenazadas en el Parque Natural de Aiako

eta landare espezieen katalogoa egingo da. Espezie horientzat kudeaketa planak egingo dira.

4.– Biztanlerien purutasuna jagongo da, Aiakoharrian aurkitutako geografi azpiespezie edo arrazetatik bestelakorik sarraraztea ekidinez.

5.– Zuhaitz zahar eta urtetsuei dagokienez, zuhaitz horiek erabiltzen dituzten espezieen garapen egokirako behar den besteko kopurua gorde eta artatuko da.

6.– Erreka ibaietako fauna berreskuratzeko behar diren neurriak hartuko dira.

7.– Egon dauden azpiegiturak, beharrezkoa bada, faunarako egokituko dira. Ubideetan kokatutako presetan mailak jarriko dira arrain migratzaileentzat.

B.– ARAUAK.

1.– Debekaturik dago abereak hil, kaltetu, zirikatu edo artegatzea, baita kume, arraultze edo habiak biltzea ere, plan honetan jasotako kasuetan edo Parkearen Kudeaketa Organoaren beren beregiko baimenaz izan ezik.

2.– Debekaturik dago landareak erauzi, suntsitu edo kaltetzea, plan honetan onartutako ihardueretan edo Parkearen Kudeaketa Organoaren beren beregiko baimenaz izan ezik.

3.– Landare edo onddoen bilketa, merkataritza-helburuekin burutzen bada, Parkearen Kudeaketa Organoak baimendu beharko du.

4.– Parkearen Kudeaketa Organoak arautu ahal izango du landare edo onddoen bilketa, norberak kontsumitzeko denean.

5.– Babesturiko naturgunean egun dauden basa-animalien espezieetako ale berriak sarrarazteko, beharrezkoa izango da Parkearen Kudeaketa Organoaren beren beregiko baimena, zeinek kontutan hartu beharko baitu ale horiek sarrarazteak izan dezakeen eragina.

6.– Parke naturalean egun ez dauden espezieak sarrarazi edo berriz sarrarazteko, plan teknikoa behar da, zeinek, gutxienez, zioen azalpena, horrelako espezieak sarrarazteak ingurugiroan duen eraginaren ebaluazioa eta espezie horren jarraipen eta kontrolerako plana bilduko dituen; Parkearen Kudeaketa Organoak onetsi beharko du plan teknikoa.

7.– Espezieren bat ugaldu, berez sartu edo sarraraztea ekosistemen egonkortasunerako edo pertsonen osasun edo segurtasunerako kaltegarria denean, edota basa-faunako espezieetarako edo parkean burutzen diren ekonomi ihardueretarako kalteak aldez aurretik ekiditeko denean ere, ale batzuk harrapatu edo hiltzeko baimena eman ahal izango du Parkearen Kudeaketa Organoak. Baimenean ondoko hauek zehaztu beharko dira:

a) Ukituko dituen espezieak.
b) Erabiliko diren eskuarte, sistema edo metodoak.
c) Arrisku-baldintzak eta denbora eta lekuari buruzko inguruabarrrak.

8.– Parkearen Kudeaketa Organoak behar bezala zuritu eta beren beregi baimendu ezean, debekaturik daude era guztietako iharduketak urbazter edo hezeguneetako basoetan.

Harria, que exijan medidas específicas de protección. Para estas especies se elaborarán Planes de Gestión.

4.– Se velará por la pureza de las poblaciones, evitando introducir subespecies o razas geográficas distintas a las encontradas en Aiako Harria.

5.– Se respetará y conservará el número suficiente de árboles viejos y añosos, necesarios para el correcto desarrollo de las especies que los utilizan.

6.– Se tomarán las medidas necesarias para la recuperación de la fauna asociada a los cursos fluviales.

7.– Se procederá a la adecuación para la fauna de las infraestructuras existentes que así lo requieran. En las presas situadas a lo largo de los cauces se construirán escalas para los peces migratorios.

B.– NORMAS.

1.– Se prohibe dar muerte, dañar, molestar e inquietar a los animales, así como la recolección de sus crías, huevos o nidos, salvo los supuestos contemplados en este Plan o por autorización expresa del Órgano Gestor del Parque.

2.– Se prohibe arrancar, destruir o dañar los vegetales, salvo las actividades contempladas en este Plan o por autorización expresa del Órgano Gestor del Parque.

3.– La recolección de vegetales u hongos, con fines comerciales, deberá ser autorizada por el Órgano Gestor del Parque.

4.– La recolección de vegetales u hongos, con fines de autoconsumo, podrá ser regulada por el Órgano Gestor del Parque.

5.– La introducción de nuevos individuos de especies animales silvestres existentes en el Espacio Natural Protegido necesitará de la aprobación expresa del Órgano Gestor del Parque, para lo cual deberá tener en cuenta la incidencia de la introducción.

6.– La introducción o reintroducción de especies actualmente no presentes en el Parque Natural deberá contar con el correspondiente Plan Técnico que constará como mínimo de una exposición de objetivos, una evaluación ambiental de la incidencia de la introducción y un Plan de seguimiento y control de esa especie, debiendo ser aprobado por el Órgano Gestor del Parque.

7.– Cuando la proliferación, entrada o introducción de una especie resulte perjudicial para la estabilidad de los ecosistemas, la salud o seguridad de las personas o para prevenir daños importantes a las especies de la fauna silvestre o las actividades económicas que se desarrollen en el Parque, el Órgano Gestor del Parque podrá autorizar la captura o eliminación de ejemplares. La autorización habrá de especificar:

a) Las especies a que se refiera.
b) Los medios, sistemas o métodos a emplear.
c) Las condiciones de riesgo y las circunstancias de tiempo y lugar.

8.– Se prohibe cualquier actuación sobre los bosques de ribera y humedales no autorizada expresamente, y debidamente justificada por el Órgano Gestor del Parque.

9.– Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak arau zehatzak ezarriko ditu, biohilkari edo beste edozein gai kimikoren erabilerak parkeko fauna edo florarentzako arriskurik ekar ez dezan; plan horrek, bestetik, debekatu ere debekatu ahal izango ditu biztanleria horientzat oso kaltegarritzat hartzen direnak.

*26. atala.*– Paisaiaren babesa.

A.– ARTEZPIDEAK.

1.– Edozein eraikuntza berri diseinatzerakoan, eraikuntza kokatuko den inguruko paisaiarekin bat datozen gai, kolore eta eiteak erabili beharko dira.

2.– Paisaiaren aldetik degradaturik dauden aldeak atontzeko lehentasun-egitarau bat ezarriko da, alderik agerikoenei lehentasuna emanez. Ildo horretatik, gasbidearen, Arlepoko zabortegiaren, Endarako urak ekartzeko hodien eta bertan behera utzitako ur hodien inguruko paisaia atontzeko neurriei emango zaie lehentasuna.

3.– Paisaiarekiko eraginari arreta berezia emango zaio oso agerikoak diren aldeetan burutzen diren iharduketetan eta azpiegitura linealetan.

4.– Parke naturaleko kartelen diseinuak, ahalik eta neurririk handienean, inguruarekin bat etorri beharko du.

5.– Ebaki, birbasotu edo larreak jarriko diren aldeetan, eite geometrikoegiak ekiditeko ahaleginak egingo dira. Lerro zuzenak baztertzea gomendatzen da orokorrean, eta batez ere maila-kurben paraleloak edo perpendikularrak badira. Birbasoketa berrietan, hostozabalak landatzeko finkatu diren portzentaiak erabiltzea aholkatzen da lerro zuzen horiek apurtzeko.

6.– Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak gorde behar diren paisaiaren berezitasunak zehaztuko ditu, hala natur nola kultur elementuak, eta babes-ingurua mugatuko du, erakusten duen ikuspegia kontuan hartuz.

B.– ARAUAK.

Landa lurzoruaren gaineko edozein eraikuntzaren diseinuak Parkearen Kudeaketa Organoaren onespena jaso beharko du eta eraikuntza kokatuko den inguruko paisaiarekin bat datozen gai, kolore eta eiteak hartuko dira kontuan diseinua egiteko.

*27. atala.*– Baliabide arkeologiko eta paleontologikoen babesa.

A.– HELBURUAK.

1.– Parke naturalaren eremuan dagoen arkeologia eta paleontologiako ondarea zaintzea.

2.– Premian aurkitzen diren arkeologia eta paleontologiako ondarearen elementuei beren balioa emateko parte hartzea, arkitektura eta/edo paisaiarako diren zaharberrikuntza neurriak bultzatu edo/eta burutuz.

3.– Euskal Herriko historia eta aurrehistoriako herentziarako Aiako-harriaren ekarpena aberasteko,

9.– El Plan Rector de Uso y Gestión establecerá normas específicas para que el empleo de biocidas en el Parque y de cualquier sustancia química se realice sin riesgos para la fauna o la flora del parque, pudiendo disponer, incluso, la prohibición del empleo de aquéllas que se consideren gravemente perjudiciales para dichas poblaciones.

*Artículo 26.*– Protección del paisaje.

A.– DIRECTRICES.

1.– Toda nueva construcción deberá considerar en su diseño el empleo de materiales, colores y formas que la integre paisajísticamente en el entorno en que se inscriba.

2.– Se establecerá un programa de prioridades de recuperación de aquellas zonas degradadas paisajísticamente, dando prioridad a las áreas de mayor accesibilidad visual. En este sentido se considera de interés prioritario las medidas de adecuación paisajística del entorno del gaseoducto, escombrera de Arlepo, la traída de aguas de Endara y las tuberías de las tomas de agua abandonadas.

3.– El impacto paisajístico deberá ser especialmente tenido en cuenta en las infraestructuras lineales y en las actuaciones realizadas en zonas de alta visibilidad.

4.– El diseño de los carteles de publicidad del Parque Natural deberá ser lo más acorde posible con el entorno.

5.– Se tratarán de evitar las formas demasiado geométricas en las zonas a cortar, repoblar o implantar pastizales. Se desaconsejan las líneas rectas en general, y especialmente si son paralelas o perpendiculares a las curvas de nivel. Se aconseja jugar con los porcentajes establecidos de plantaciones de frondosas para romper estos trazos rectos en las nuevas repoblaciones.

6.– El Plan Rector de Uso y Gestión determinará aquellas singularidades del paisaje, tanto elementos naturales como culturales, que deban ser preservados paisajísticamente, delimitando su entorno de protección, teniendo en cuenta su cuenca visual.

B.– NORMAS.

El diseño de cualquier construcción sobre suelo rústico deberá ser aprobado por el Órgano Gestor del Parque y deberá considerar en su diseño el empleo de materiales, colores y formas que la integre paisajísticamente en el entorno en que se inscriba.

*Artículo 27.*– Protección de los recursos arqueológicos y paleontológicos.

A.– OBJETIVOS.

1.– Preservar el Patrimonio Arqueológico y Paleontológico existente en los límites del Parque Natural.

2.– Participar en la puesta en valor de aquellos elementos del patrimonio Patrimonio Arqueológico y Paleontológico que así lo precisen, mediante el apoyo y/o ejecución de medidas de restauración arquitectónica y/o paisajística.

3.– Favorecer la investigación arqueológica y cultural con el fin de enriquecer la aportación de Aiako

arkeologia eta kultura arloetako ikerketari laguntzea.

4.– Aiako-harria parke naturaleko arkeologia eta paleontologiako ondarearen hezkuntza-balioak hedatu eta zabaltzea, gizarte osoaren kulturaren aberasgarri izan daitezen.

B.– ARTEZPIDEAK.

1.– Arkeologia eta paleontologiako ondarea osatzen duten ondasunak egoera onean arta daitezen jagongo da, mantenimendua eta garbiketa egiteko behar diren iharduera eta lanak burutu edo gainikusiz.

2.– Kulturako ondarea osatzen duten elementuak aztertu asmoz ikertzaileak bertara hurbiltzeko aukerak arautu eta kontrolatu egingo dira.

3.– Arkeologia eta paleontologiako ondarearen elementuetara jendea hurbiltzeko aukerak eskainiko dira, elementu horien artapena kaltetzen ez den neurrian.

4.– Aiako-harriaren arkeologia eta paleontologiako ondarearen balioak jendartean zabaltzeko, jendearen jakinaren gainean jartzea premiazkoa baita, informazio eta hezkuntzarako behar den azpiegitura antolatuko da (seinaleak, argibideetarako panelak, liburuskak eta abar).

5.– Nafarroako Foru Komunitatearekin itunak egiteko bideak jarriko dira, elkarrekin duten kultura ondarea babesteko.

C.– ARAUAK.

1.– Arkeologia eta paleontologiako ondarea osatzen duten elementu guztiek, beste babes maila bat ezarri eta kalifikatu eta inbentarioan sar daitezkeen ondasunak salbuetsita, 50 metroko erradioko babesaldea izango dute. Horrela eratutako guneei «Arkeologia eta Paleontologiako Ondarea Babesteko Aldea» izena emango zaie. Horretarako, Parkearen Kudeaketa Organoak kulturako elementuen inbentarioa eta katalogazioa egingo du, gaiaren arabera eskuduna den administrazioak manuzko txostena egin ondoren. Adierazitako inbentarioa eta katalogazioa aldian-aldian berrikusi ahal izango dira.

2.– Arkeologia eta Paleontologiako Ondarea Babesteko Aldeak hiru azpialde izan ditzake:

a) Erreserbakoa. Hemen iharduera guztiak baztertuko dira, zientzia eta kulturakoak eta ondasunen artapenerako lagungarriak direnak ezik.

